

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeko urteko batzarra egingen da ostiral honetan Iruñean

Ekitaldian Barkos Lehendakaria eta bere parekideak Iñigo Urkullu eta Alain Roussetek hartuko dute parte

Astelehena, 2019.eko martxoak 18

Ostiral honetan, martxoak 22, Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeko urteko batzarra egingo da Iruñean. Bertan izango dira Nafarroako Lehendakaria Uxue Barkos eta bere parekideak Iñigo Urkullu eta Alain Rousset.

Jardunaldiari Nafarroak, pasaden urtetik Euroeskualdeko lehendakaritzaren buru denak, harrerra egingo die Nafarroako Jauregian eskualdeetako arduradun nagusiei.

Ondoren, urteko batzarra egingen dute eta bertan, gai ordenean izango dituzte, aurreko bileraren aktaren onarpena, 2018ko balantzearen aurkezpena, hala nola aurrekontuen prebizioak eta 2019rako laguntzen deialdiak.

Batzarra amaituta, Nafarroako Presidentak, eta Euskadi eta Akitania Berriko presidentek prentsaurrekoa eskainiko dute bileran landutako gaien inguruko informazioa emateko.

Euroeskualdea

1992. urtean, Nafarroak, Akitaniak eta Euskadik lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten erakundearen arteko harremanak zegozkien eskumenen esparruan garatzeko, guztientzako interesak lortzeko xedearekin.

Hala ere, 2000 urtetik Nafarroak elkarlan horrekin jarraitu zuen biko hitzarmenaren bitartez. Bitartean, Euskadi eta Akitaniak, hasierako protokoloa kontuan hartuz, eskubide komunitarioak araututako bestelako lankidetzaren estruktura baterantz pausua eman zuten, nortasun juridikoz onitua, eta helburu izanik kide direnen artean, mugaz gaindikoa elkarlanaz gain, eskualdeen artean eta maila transnasionalean ere elkarlana bultzatzea. Horretarako, 2011n, Lurralde Lankidetzako Europako Taldea (LLET) sortu zuten, Akitania/Euskadi Euroeskualdea izenarekin.



Roussetek makila eman dio Barkosi, Urkulluren aurrean, lehengo urteko batzarrean.

2016an, Akitaniak Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak sartu zituen, Akitania Berriko eskualdea osatuz, eta Nafarroak taldean sartzeko eskaera egin zuen, eta 2017ko martxoan sartu ostean, Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdea izena hartu zuen.